

JON GOTZON ETXEBARRIA

Barrero esi daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Itxaruak berua euzkotarren ontzija
Coguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxasora; 146. orrialdea. - Bilbo, 1931)

GREZIA-ko

PHILOSOPHIA

Λόγος δυνάστης μέγας ἐστίν
(Gorgias, "Helena" 8-9)

2

εἰς τὴν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

Jon Gotzón Etxebarria

GREZIA-ko

PHILOSOPHIA

εις τήν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

liburu-sorta

GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI-160-88

ISBN: 84-404-1483-8

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

AURKEZTU-BEHARRA

Augustin deunak diosku bere "De Civitate Dei" liburuan, behinola Pitagoras-i itandu ziotela ea zer zen; eta honela erantzun zuela: "philosophoa naiz", jakin-zale, alegia. Jakituna zela esateko lotsa edo beldur izan, nonbait, eta "sophos" (jakitun) hitzari lartxo eritzita, "sapiens" ohorea beste batzurentzako utzirik, bera horretarako zaletasunarekin nahikotu zen.

Ario hontara, nik "oso philosophoa" aitortu beharko nuke, hain urrun ikusten dut eta neure burua jakintzatik, filosofiatik ere bai. Ez nator, beraz, philosophia irakastera, nahiz eta liburuxkaren tituluak horretarako bidea eman.

Beste asmo bat izan nuen antxina le

rro hauek idazterakoan. Gure ikasle gazteek, euskara oztaz ozta landutakoek, philosophi-gaiak beren hizkuntzaz azaltzeko orduan zituzten eragozpenak ikusi eta zelanbait laguntzeko gogoia eta guraria biztu zitzaizkidan. Eta lanari ekin nion. Saio haren emaitza dituzu orrialdeok. Eurok irakurriz gure ikasle gaztetxoek philosophi-gai batzu euskaraz hobeki azaltzen ikasten badute, ni pozik.

Χαίρετε.

Egileak.

PHILOSOPHIA

Grekoz φιλοσοφία (jakin-zale) duzu hitzaren jatorria. Hasiara hartan ga urko esan-nahia ez zizun arren, guna eta helburua berdintsu. Hala ere, zehatzago egin da egun jakintza eta gure egunetako esanguraz baliatuko gara azalpenetan.

Munduon gertaerak eta jazoerak askotarikoak dituzu. Euron aurrean gizona, barru-kanpokoan aurrean, alegia, zurturik eta jakin-minez dago. Direnoi erantzun bat bilatzen dihardu. Eta ez nolana hiko erantzuna, arrazoi hurrena emango lukeena, azken muineraino, azken zergatiraino garamatzana baizik. Oraingo eta lehengo gehienek honelatsu diote philosophiagatik: Gauza ororen ezagutza, azken zioedo zergatietaraino helduz. Aspaldi-

koek ere antzeratsu uste zuten. Kike-
ro-k, esaterako: "*Philosophia est re-
rum humanarum et divinarum, causarum
que quibus hae res continentur, sci-
entia*". (1)

Beste arloetan badabiltza gizonak
zergatiak bilatzen eta idorotzen.
Zer baten arrazoia idorotakoan, bai-
na, kitto. Hor jakintza haren helburu
a eta bukaera. *Philosophia*, aldiz, az-
ken azkeneraino doa ilunak urratzen
ezin gehiagoraino. Jakinlariok, oste-
ra, giza-adimena daramate lagun ber-
en bilaketan. *Theologilariek* ere ba-
dakite azken azkeneraino heltzen. A-
labaina, ok Jaungoikoak emandako hi-
tza eta argitasuna lagun eta gidari.
Argi biok muturka egon ez arren, phi-
losophoak adimen-argi hutsez dabilz-
kizu. Zerbait gainera dezagun, beraz:
Gauza ororen ezagutza, azken zio edo
zergatiraino helduz, giza-adimenaren
indar hutsez.

Bestelako ezaguerak ere egon badau-
de:

Jakite arrunta: Gizonak gauzak ikus-
iz besterik gabe, berez, lortzen due-
na. Jakintzazko jakitea: Gertaerok i-
kusi eta ikusi gizonak, oharpenak e-
gin, bildu, alderatu eta hortik jazo-
takoaren arrazoi emateraino edo ber-
dinean jazoko denaren berri emateko
gai ere bihurtzen da. *Maritain-ek*
beste hirurok aipatzen ditu: Ontasu-
nezko ezagutza: gizaki orok, on izan-
ez, barne-garbitasunez eta zuzentasu-
nez, gauzetarako izan ohi duen lagun-
tza eta etekina; Gogozkoa: gogo-lane-
tan eta ekinaldietan dihardutenek,
gogartean, beren barne-barnean, argi-
aldiak izaten dituzte zenbait gogo-
gauza ezagutzeko; Olermenezko ezagu-
tza: olerki senaz, eder-bera dena, hel-
du liteke halako batean besteek eki-
naren ekinez jakiten dutenera. (2)
Nola jardungo, nongo bidetik abiatu-

ko gara ikasketa hauetan? Lau bide e do era ditukegu hontarako. Biographia: jakinlari batek zer esan duen ez ezik, zergatik, zelako giroan edo inguruneetan, nolako herri, aberri eta kondaira-preminak izan dituen inguru jakitea ere onuragarri daiteke. Iritzi-azalpena: bakoitzaren eritziak eta, batez ere, bat bederaren eritzi en erpinera helduta, haren eritzi en guna azaltzea. Monographia: auzi hontaz edo hartaz batek eta beste-tzuek zer esan duten bereziki ezagutzea laguntza handia izango zaigu. Honela jakin dezakegu nondik nora sortu, korapilotu edo arildu den halako auziaren mataza. Hariak nondik dakartzan eta nora daramatzan. Philosophi-era: hangoen eta hemengoen bideak, helburuak, eritziak eta lehiaketak elkar hartuta argiago ikus liteke gizadiak bere kezkei arkitu dien

erantzuna eta irteera. Gure arrazak gizaldietan zehar egindako urratsak. Hortik atera dezakegu garbi zer ondukegun eta zer kalte lehengoëi begiratu. Zuzenaren bila doa etengabe gizadia eta, atarramenduz sar gaitezke lehengoen ibilbideetan, berriz haie n okerkerietan ez erortzeko. Ezer onik ote dakarkigu philosophia honek, baina? Bai ziur. Gizonak mendetan barna ulertu nahi baditugu, zer uste izan duten, nolako usteak erabili dituzten jakin behar. Ekintza argitzeko ez ezik, egia arkitzeko ere balioko digu: giza-arrazoak berez egia asko bilatu eta argitu dituen arren, ezin uka askotan okerrerrian edo ilunpetan ibilia dela gizona, mugatua izaki. Hari hontara ederki dator harako Batzarrearen esana: "*Divinae Revelationi tribuendum est, ut e a quae in rebus divinis humanae ra-*

*tioni per se impervia non sunt, in
praesenti quoque generis humani con
ditione ab omnibus, expedite, firma
certitudine et nullo admixto errore
cognosci possint". (3)*

Theologiariek, antxinako Eliz Guraso
ek batipat, berri ugari dakarte ber
en idazkietan orduko pentsalariez. E
ta Theologia bera ere agertutako E
gia jakintza-philosophieraz mamitu
eta agertzeko asko ahalegindu izan
da.

METAPHISIKA

Badaude batzu bizi-izatearen izku
tuki aurrean jakingura edo kezka
rik ez dutenak. Izatez gainera gog
gauzetara zaletasunik gabeko gogo
ak dira, bestelako mundurik asma
tzen edo haren behartzen ez daki
tenak. Egunerokoarekin bizi dira
soin-gogoen gauzetan. Moral-oina
rrietan gogoetarik ez dagie, ezta
lurbiraren jatorri eta etorkizun-

az ere. Ahal dutenean bizia gozatu,
horixe. Zauri bat hartzerakoan txi
lioka, zakurrak bezala, zauritutakoa
miazkatu eta aurrera lehengora.

Azkenengo amerikar jakinlarien eri
tziz, hauetxek dira izakirik goraga
rrienak, behin batean jaiotakoak, on
ce borne. Hala ere, beste batzu bada
ude bi aldiz jaiotakoak. Horrelako
ek izadia, bizitza, norberaren gogo
eta interpreta behar dituzte. Eta
zelan edo halan, buruhausteok garbi
tu artean zoritxarrekoak izaten di
ra. Baikorra naizen arren eta Gogo
Gurenak nere biztaldian doai zeru
koak isuri dituen arren, bi aldiz
jaiotako izaki halan holango hori
etarikoa nauzue, twice borne.

Gaurko jakinlariak arretaz aztertu
oni dituzte horrelako bizidunak, zo
morroen ekanduak aztertzen dituen
izadi-jakintsu baten hoztasunez,

noski. Izatez gainera, gaitasunaren ama-
rrua, ludi-zirrarak, erlijio-sentipe-
naren mailak, psikologi-izadilari ha-
uentzat aztergai geldi sakona izan
ohi dira.

Ikuspegi hau onartuta, jar dezadan e-
ne burua, beheengo zomorro antzo, mi-
kroskopiaoren leiarpean eta hitz da-
gidan neu-bizidunaz. (4)

OHARRAK

- (1) Kikero, M.T.: "De Officiis", I, II,
cap. 2
- (2) Maritain, J.: "Raison et Raisons"
- (3) Concilium Vaticanum I: "Constitu-
tio dogmatica de fide catholica
cap. 2. DENZINGER, 1.786.
Batikano II: "Jaungoikoaren Ager-
pena"; Euskal Argitalpenak, Bilbo
13. orrialdea. Bilbo, 1966.
- (4) Palacio Valdés, A.: "Testamento
Literario".

PHILOSOPHI-AROK

Philosophi hariari oratu eta ez gara inola ere gorantzako bidean abiatuko geldi edo oker-unerik gabe. Aurrera-atzeraldiak dituela laster antz emango diogu. Lehengoek esandakoa ahaztu, teori berriak asmatu eta herrero lehengo asmakatei heldu. Horra philosophi ibilkera geldigabea. Ilunaldiak eta nabarmenaldiak izan ditu eta, agerikoen diren garaiak eta gogaiak begien aurrean ditugula, aro berezi batzuek muga ditzakegu, berarizko ohar-garriz horniduak.

Sorkaldean baziren, ez bairik gabe, horrelako jakintzari buruzko saiaketak egin zituztenak. Horien ekinaldiak, berriaz, azaletara egikoak edo eten asko zatikatuak ziren eta, ez dute philosophi gorputzik hartzen. Beraz, gure azalketan alde batera utzi (nahiz eta

hurrengokoen pentsakeran zer ikusia eduki) eta geroago Sartaldean hasita ko philosophi-maminari so egingo diogu sailkapen hau egin orduan.

Honako hiru aro edo aldi nagusietan atalduko dugu gure ikastea:

PHILOSOPHI PAGANOA (K.a. ko VI. gizal ditik K.o. ko VI. gizaldiraino), Grezia-Erromako pentsalariek jasotakoa Garai hartan, hasieran, philosophi-aziak ez dira zehatz-mehatz azaltzen eta garbitzen. Platon eta Aristoteles-ek, batez ere, ematen diote philosophiari gorakada eta sendotasuna, gure egunetarainokoa, alegia. Horiek, baina, buruhauste guztietan ez dute gorenera jotzen. Eta beren ikasleek edo jarraitzaileek ez dakite maisu handi haien esanei eusten eta philosophiaren beheraldia hasten da, neoplatonismoaren azken dirdaia arren, eta paganoen erlijio usteaz batera hiltzen da.

KRISTAU PHILOSOPHIA(K.o.ko II-XVI. gizaldiak).Zortzigarren gizaldira arte Eliz Gurasoek antxinakoen pentsakera,Platon eta Platon zale berriena batipat,berentzakotu egiten dute.Agerpenaren argitasunaz osotu-zuzendu eta Kristau philosophiaren oinarri sendoak ipintzen dituzte.Ondoren Eskolastika sortzen da,Akino-ko Toma deuna buru.Oraingo hontan antxinakoen pentsaketa eta lehengo Eliz Gurasoen azterketa berenganaturik,kristau philosophiaren irabiatze-osotzeraino heltzen dira.Philosophia katolikorik berez ez dago,bai izik eta ikuspegi katolikoz edo,philosophia egiteko asmo zindoa.(1)

GAURKO PHILOSOPHIA(XVI-XX. gizaldiak).Batez ere Deskartes-en garaian hasten da Kristau philosophia makaltzen eta galtzen.Jakintza arloan egindako aurrerapen eta asmatetek eta izadian sortutako gertakari berr

iek adimen hutsa gura dute gidari eta theologi-sinesmenaren babesa arbuia garritzat daukate.Adimen-jakintza, kritika hutsa.Eskolastika gauzakorra eta adimen zalekeria norberakorra deienezake handi-handika.Gure egunetan ez daude ez bata ez bestea guztiaz baztertzeke.Aitzitik bakoitzak duen alderdi ona hartu eta elkar aberastuteko.

"Betiko auziak, gaurko auziak. Nahiz eta horietaz ikusmolde ezberdinak izan. Hala ere, horien aurrean atzo-gaur biharretako gizon zuhurrek berdintsu jardungo dute, azal oso bestelakoekin baina. Egia esan, giza-gogoak beragatik, ludiarekiko eta Jaungoikoarekiko lokarriengatik dagian idoro-lana berdina da eta..."(2)

URREZKO JAKITURIA

Egoki egokia da, beraz, jakintsu paganoek berek ezagututako egiok a-

gertutako irakaspenaren alde eta onuraz erabiltzea. Giza-jakintza eta aurkalarien eritziak ere kristau sinesmenari mesedegarri zaizkiola ager dadin. Jardunbide hau, egiaz, ez da sortu berria; aspaldikoa da eta Eliz Guraso Deunek askotan erabilia bai- zik... Gainera, (Toma deuna) adimena sinesmenetik ederki bereziz eta ego ki elkartuz, bata-bestearen arloari hain bikainki eutsi zion, adimena To ma deunaren hegoetan gorengo maila- ra jasota ezin igo daiteke gorago, eta sinesmenak ere Tomaren bidez atarramendu handiagorik ezin jaso de zake adimenetik... Gogo eta esker o- nez hartzen ditugu jakintza motak o ro eta asmakizun ospetsu guztiak, hangoak eta hemengoak. Aldi berean, zuei Anai agurgarri guztioi eskatzen dizuegu, arren, sinesmen katoliko- aren alde eta ospez, gizartearen o-

nez eta jakintza mota guztien ber- piztez, berritu eta aldarrikatu, aha- l bestean, Toma deunaren urrezko ja- kituria. Toma deunaren jakituria e- san dugu. Eskolastikoek ezer zorroz- keriaz edo aldikeria hutsez iraka- tsi badute, gure egunetako irakas- pen ziurren aldean ezer gaitzeste- korik bada, edo inola ere ontzat ha- rtu ezin litekeenik, ez dugu nahi, jakina, gure egunotan jarraigarri- tzat ipin dadin. (3)

OHARRAK

- (1) Hessen Johannes: "Die Philosophie des Heiligen Augustinus".
- (2) Pio XII: 1958-ko Irailaren 21an.
- (3) Leon XIII: 1879-ko agorrilaren 4an, "Aeterni Patris Filius", 3-12-21.

GREKOAK JAKINTZA BIDEETAN

Sorkaldean baziren gizon asko lurreko gertaerak aztertu eta ondorioak ateratzen zituztenak. Alabaina, gehienak ekintzara zuzenduak ziren. Teknika hobea nondik lortu. Gertaera haueu azalpena eta arrazoia, berriz, erlijio-lainotan bilduak dagerzkigu. Arrazoi eta adierazpenik sakonena, oraingo eta geroko balio duena, mitokutsuz nahasia damaigute. Asmamen-irudimenez erantzuten diote mundu-agerpenari. Sorkaldeko engandik gabe, sorkaldeko ei loturik jaiotzen da grekoen philosophia. Hangoek gertaerak eta zehaztasunak eta hemengoek beroien azalpen eta adierazpena dakartzate. Grekoek ludia eta izadia adimen-langai dagie. Irudimenez ez

baina adimenez ekiten diote lurbira eta inguruko gertatzeari. Euren erlijioak irakaskizuna baino gehiago ja jardunkizuna opa die eta askatasun handiagoz eta argitasun zabalagoz hartzen dakite ingurumariak. Sortaldeko erlijio zaleen aldean, adimenaz eta gogoaz birjabetzen dira, adimena eta gogoaz beren baitaratuz. (1)

MILETO-KO TALES

(K.a.ko 624-562 inguruan)

Gizona bere baitara so egiten hasi baino lehen, ateko gertakarietara a di gelditzen dira jakinzaleak. Sokrates-ekin hasten dira norberaren mundua gogoematen. Horregatik Sokrates-en aurretikoak aztertu beharra dadukagu ezer baino lehen: joniarrak, pitagoratarrak, eleatarrak eta atomistak eta abderatarrak. Ordura arte ez zegoen philosophi-

oinarririk eta beren lehenengo urratsak oker edo hutsak daitezke. Izakiek izatea badutela argi dakusate eta aldi berean aldatu egiten direla sorkariak. Izan eta aldatu era batera. Non da, bada, direnon hasiera edo muina? Zertan datza izadiaren zera? Horra beren lehenengo meritua, arrazoi bat, oinarri bat bilatu nahi dutela direnentzako. Eta giza-gogoaz alde bat utzita, gizadia gabe, izadia darabilte aztergai. Hortik Aristoteles-engandik hartu zuten izena: φύσιολογοι, izadilariak, izakien izanmuinak idoro nahi dituztenak (2). Eurotariko lehenbizikoa Tales Miletokoa. Edo ez zuen bat ere idatzi edo galdu egin zaizkigu haren lanak. Bere bizitza lehenengotatik ipuin artean ageri zaigu azalduta. Gizon praktikoa omen zen, gauzei probetxua batera zalea, nahiz gudurako nahiz lanerako. Gauzak badira, izan, eta beren

aldakuntzatik berriak sortu ere egi ten dira;hala ere,izadiak badirau. Zein izan-muina,lehen gaia?Batzuk bat bakarrik,beste batzuk zenbaitzu k aukeratuko dituzte horretarako.Ta les-ek ura nahi zizun ororen izan-muina:"...Tales-ek horrelako jakin-motan lehenengoak ura dela dio.Horregatik lurra uraren gainean dagoela Ezotasuna ororen hazgarria delako, nonbait beroa ere hartatik dator eta handixek du bizia.Nondik sortzen da gauza bat?Hase du hasiera,noski.Horrexegatik hartu zuen halako eritzia,ororen hazia ezoa delakoa,alegia:eta sorkari ezeen izan-muina ura delakoa"(3)."Izadiaz hau baino eritzi zaharragorik eta antxinakoagorik ote den,horixe ez dakigu.Tales,baina,horrela mintzo omen zen lehenengo izan-muin edo zergatiaz".(4) Lurbira zabaldu handia egiten dute.(Ps.136,6)borobildua(I Sam.2)zutabe

batzuen gainean jarririk(II Sam.22, 16;Ps.75,4)eta igeri dabilen beheko itsasoko urek eutsita(Ex.20,4;Ps. 136,6).(5).

JAKIN GALEA

Gizon guztiek izakeraz nahi dute jakin.Zentzumene maitasuna leku ko.Mesedegarri ala ez,berez maite ditugu,batez ere begiak.Jarduketarako ez ezik,ezer nahi badugu ere ikusmena beste edozein baino gura go izaten dugu.Zergatik?Zentzumenetik honetxek laguntzen digu gehiena ezagutzen,bereizitasun asko erakutsiz.(6)

Ohizko zentzunenetik goragoko antzea arkitu zuena guztiek mirestea berezkoa da,beraz;asmatutakoaren etekinagatik ez ezik,besteengandik bereizten den bere jakintzagatik ere bai.Horra antze asko

tarikoak asmatuta; batzu beharrezko etarako, beste batzu jardunbiderako Bigarren^oak beti besteak baino jakintsuagotzat edukiak izan dira, horien jakintza etekin zalea ez zelako. Gauzok arkituta, atseginerako eta beharri^zan etarako ez direnak arkitu ziren. Lehenbizi, gizonak aske ziren tokietan. Matematikak lehenengo Egipto aldean sortu ziren. Han paiz jendea astiunez zebilen eta. (7).

Gizonak lehenen eta behin harrimenagatik hasi ziren philosophiketan. Hasikeran ohizko gertakari harrigarriengatik. Gero apurka apurka gauza handiagoak gogoan hartzen hasi ziren, ilargiaren gorabeherak, eguzki-izarrenak eta ludiaren sorpena. Ez bai edo harrimena dituenak ez bide da jakitun. Beronegatik mitozalea ere philosophotzat dadukagu, mi

toa harrimenetik dator eta. Ez jakinari itzuri gogoz philosophiketan hasi baziren, jakitearren hasi ziren ikasketan eta ez etekin zaltetasunez. (8)

ANAXIMANDRO

(610-547. urte ingurukoa)

Honen eritziz, berriz, izate oinarri edo lehengai hori ἀπείρων edo mugagabeko bat da. Hotz-beroak, ezo-lehorrak eta, elkarri buruz ari dira eta bietatik bat geratuko litzateke garaile azkenean. Izan-muin hori ez da, beraz, gai bakar bat; hortik gai bakarra nagusi eta zuzentasunik eza litzateke buru munduan. Ἀπείρων hortan askotariko gaiak bat eginik daude, ostera. Eta guenean erre, bertara doaz direnak. (9)

"Dena hasikera bat edo hasikera batengandik." Ἀπείρων-ek, aldiz, ez du hasierarik, mugaduna litzateke eta.

Gainera, hasiera denez gero, sortu gabea eta suntsigabea izan behar da. Izan denak azkena behar du eta usteltze orok badu azkena. Beraz, haiek ez du hasierarik eta beste guztien hasiera da. Beste gauza guztiak hartu eta zuzendu egiten ditu. 'ΑΠΕΙ-

POV -ez gain beste zergati batzu jartzen dituztenek ere halaxe diote, gogoia edo maitea. Jainkozkoa dugu hau, suntsiezina eta ustelezina" (10)

"Hasieratan gizona beste endako animaliek sortua omen da. Hara zergatik: beste animaliak bertatik hasten dira berenez elikatzen eta gizonak bakarrak behar du luzaroan inoren ardurara. Hori dela eta, hasiera hartan hola izan balitz, gizonak ezin izan zezakeen bizirik jarraitu". (11)

"Gogoaren izakera haizearena bezalakoxea omen, Anaximandro-ren ustez. (12)

Izkutuzko oben bategatik, gero, dire-

nok ἀπείρον -ean elkartzen dira berriro. Lurbira eta bertako bizidunen usteaz Kant-Laplace, Lamark-Darwin baino hogeitabost gizaldi lehenago jardun zuen Anaximandro-k bere eretzietekin. Mugagabea sartuz sekulako arrerakada egiten du filosofi arloan. Mugagabetik mundua eratortzen beronek egin zizun lehenengo ahalegina.

Mugagabea eta Kaos grekoentzat bat dira. Kosmos (ludia atondua) Kaos-etik omen zetorren heladetarrentzat. Hala xe Hesiodo-k bere "Teogonia"-n: "Gauza guztiak baino askozaz ere lehenago Kaos bazen, gero Ludi zahala". (13)


OHARRAK

- (1) Werner, Charles: "La Philosophie grecque", Paris, 1938.
Thonnard, F.J.: "Précis d'Histoire de la Philosophie", Tournai, 1949.
- (2) Jakin Taldea: "Filosofiaren Kondai ira", Arantzazu, 1965; 14. orrialde a.
- (3) Aristoteles: "Metaphisika", 983 b, 20-28.
- (4) idem ibidem, 984 a, 1-3.
- (5) Arnaldich, Luis, O.F.M.: "El origen del Mundo y del Hombre según la Biblia", Madrid, 1958; 71. orrialdea.
- (6) Aristoteles, ibidem: 980 b, 21-27.
- (7) idem ibidem: 981 b, 13-25
- (8) idem ibidem: 982 a, 12-21.
- (9) Werner, Charles, in opere citato.
- (10) Aristoteles: "Phisika", 203 b, 6

(11) Pseudoplutarko: "Stromata", 2.

(12) Aezi: IV, 3, 2.

(13) Hesiodo: "Teogonia", vv.: 116-7



● MILETO: Tales eta Anaximenes-en sorterrria.

ANAXIMENES

(588-524, K.a.)

Anaximandro-ren ikaslea; Mileto-n jaioa hau ere bai. Bere irakaslearen aldean atzera egiten du philosophi arazoan, haizea jartzen bait du lehen gaitzat. Hor erakusten da argi eta garbi nolako nekeza zen bulko abstraktoen bidez aurreratzea.

"Mileto-ko Anaximenes-ek, Euristratos-en seme eta Anaximandro-ren ikasleak, zera esan zuen: lehen gai oinarria bakarra dela eta, hark bezala mugagabea. Alabaina, ez du asmatzen zertugabea hark legez, zertua baizik eguratsa, alegia. Izate berezietan dela, lurrunez bakanduz edo multzotan lodituz. Lurrunduz sua bilakatzaren omen, multzotuz haizea, ondoren hodeiak, gero ura, gero lurra, eta azke-

nik harria. Hemendik datoz beste izakiak. Betiko higiera ere hadela esan zuen eta beraren bidez egiten dela aldakuntza". (1)

APOLONIA-ko DIOGENES
(K.a.-ko V. gizaldia)

Honek sartzen du lehenengoz ezagueran philosophian. Arrazoi hau, baina, gauzetan bertan da eta, hilozoismo-tzat har genezake berea eta beste lehengoena zentzun zabalean soilik. "Lehen gai hau handi, ahaldun, betiko eta betirakoa dela uste dut, gauza askoren ezagutzaillea. Lehen gaia, bada, ulermena izan ezik ezin banandu daiteke ororen neurria eduki gabe, uda-negua, gau eta egunarena, eurri-haizetzarena eta ozkarbiarena. Beste gauzakiak, oster, inork kontsidera balitza zuzenki, ederki eginak direla dakusake halakoak". (2)

EPHESO-ko HERAKLITO
(K.a.-ko 536-470)

Bere leinuko duintasunari uko egin eta bakardadean bizi izatea nahiago izan zuen. Iluna deitu ohi diote olerki bategatik (Περὶ φύσεως). Negartia ere deritzate, esaera zehatzegiengatik eta zeraman bizikera latzarengatik.

Etengabeko higiera, aldaketa, gertatzea ikusi munduon eta nola azalduko zer guztiok Heraklito-k? Dakutzagunak oro ez dira izaki bereziak. Etengabeko joan-etorrian dabiltzan aurrez-aurrekoak baizik. "Ezer ez da go geld, joan doa dena, eta ur lasterren antzera izakiak ere, ezin daitezke bi aldiz ur-beherean bertan sartu... πάντα βέι (3)

Nabaritu ohi dugun batasuna nondik,

orduan?" *Elkartzeak: dena eta ez dena, batena eta banatana, batena-hotsa eta bakan-hotsa, denetik bat eta batetik dena*". (4) Hortixek dager Ludian armonia osoa direnetan: πόλεμος πατήρ πάντων. Zer guztiok lehen gai goren-go eta jainkozkotik datoz: sutatik. Adimenduna da su hau, direnen neurribidea, λόγος, alegia. Giza-anima ere su horren txinparta bat baizik ez da eta direnak bihurtuko dira azkenean lehengo su hortara. "Suaren aldaketak: lehenengo kresala. Bertotik zati bat lehor eta bat sua". (5)

Adimen, λόγος hori eta etengabea tar tetuz ederki zirikatu zituen ondorengo filosofoak. Honenbestez, Pitagoras-enak zekitzan jakitun honen irakaspenaren ondorenak hauexek: Monismo hutsa: sutatik datozen guztiok bat dira eta. Bilakaera: su horretatik bertatik datoz milaka bestek.

Panteismo: dena su handitzar horren txinparta omen. Giza-anima bera ere ez daiteke hilezkorra noriki bezala.

PITAGORAS-ETA

(580-500): Samos-ko Pitagoras-ek lehengo monismoaz gabe azaldu nahi du ludiarekikoa. Ilunpetan ageri zaigu haren bizitza eta urteak igaro-ahala, haren jarraitzaileek handiago dagine irakaslearen irudia egiak eta nahaspilak gehituz. Gauza askotan ez dakigu zer den berea eta zer bere irakasleena. Egia, aritmetikan eta geometrian ez ezik, erlijioan ere berritzaileak izan ziren. Dionisios-en jaureskera, lur oparoarena, bere egiten dute. Kanta-dantzaka ospatu ohi zen jaialdi hori mendietan. (6) Bizikera latza eta arauzkoa zeramaten.

"... Quid diceret ergo, vel quo non lugeret, sinunc haec monstra videret/

Pythagoras, cunctis animalibus abstinuit qui/tanquam homine, et ventri indulgit non omne legumen?(7)

"Italicum genus auctorem habuit Pythagoram Samium, a quo etiam ferunt ipsum philosophiae nomen exortum. Nam cum antea sapientes appellarentur, qui modo quodam laudabilis vitae aliis praestare videbantur; iste interrogatus, quid profiteretur, Philosophum se esse respondit, id est studiosum vel amatorem sapientiae: quoniam sapientem profiteri, arrogantissimum videbatur".(8)

Zenbakia da, beren ustez, armoni guztizkoaren oinarria. Gauzaki guztien muina. Zenbakiari esker egiten dira gauzak argi, ulermenera heltzeraino. Bakoitxi eta bikoitxi. Bikoitxia banandu litekela eta, mugagabea eta bakoitxia ez bait da hola, mugatuaren adierazle dira. Gauzak batarekin eta

bestearekin daude horniduak. Dena da mugage-mugaren bateratasuna. Bateratasuna, bateratasunaren iturria, sorkari guztien lehengai. Giza-anima obena eginagatik gorputzean dago eta guztiz garbitu artean καθαρσις-garbitaren bidez-gorputz aldatuz doake Μετεμψύχωσις deritza honi, hau da, ihardukeran jainkoaren armonia ardietsi arterainoko guztian gorputz baretetik bestera etorriko direla bizitzera.

"Hamarrekoa zerbait guztizkoa eta zenbakien izakera hartzen bide duena. Gorputzak ere hamar direla diote ortzean dabiltzanek. Ikusgarri bederatziz baizik ez dira eta, hamargarrena Lur-aunkakoa dagie".(9)

"Hamar direla lehen gaiak, binaka: mugatua eta mugagabea, bakoitxia, bat eta asko, ezker eta eskuin, arna eta emea, geldia eta ibili dabilena, arteza eta bihurria, argia eta iluna, ona

eta txanna, laukia eta luzanga".(10)

Eritzi berdintsuko beste batzu:Hi-
ppasos,Himera-ko Petron eta Krotona
ko Alkmeon sendagile izen handikoa.
Guzti horiek adimenari,zentzumenari
zaina eta gaina hartuarazi diote e-
ta,aurrerakuntza ederra egiten dute
jakintza arloan.

— ARMONI GORENGOA —

1.-... ..

2.-Doñu garai orrezaz,
ardura gabe dagoen anima,
ba dator bere senera,
sortzez duen einera,
azturik zeukan goi-leñargira.

3.-... ..

4.-Aidez aide digaro
goren gorengo oboa barrena,
eta an bestelako
durundi itzalezina
adi du,orotan iturri lenena.

5.-... ..

6.-Eta ain erakide
izanik aindoz,gero ba dakar
erantzuki ideko,
eta bieri nasian
mintzura ezti darie elkar.

7.-... ..

8.-... ..

9.-Atozte ona,lagunak,
Apolo-talde deunaren zoruna
zeratenok,ta nere
ondasunik minena:
ikusgai oro negar ilun da!

(Fray Luis de León;"Oda a Fran-
cisco Salinas).(11)

OHARRAK

- (1) Simplizi: "Phisika", 24-26 eta beste.
- (2) Mullach: "Fragmenta philosophorum graecorum, I", 254, frag. 3-4.
- (3) Platon: "Kratylos", 402 a
- (4) Aristoteles: "De mundo", 396 b, 7.
- (5) Klemente: "Stromata", V, 150
- (6) Zielinski, Thadee: "Hist. de la Civilización antigua"; Madrid, 1963, 233-239. orrialdeak.
- (7) Jubenal: "Satira XV-Superstitio.
- (8) Augustin Deuna: "De Civitate Dei" VIII, 2.
- (9) Aristotele^s: "Metaphisika", 986 b, 8-13.
- (10) idem ibidem: 986 a, 22-26.
- (11) Goikoetxea-tar Iñasio: "Musika Isila"; Donostia, 1963; 83-85. orrialdeak.

Heraklito-k eta, dena aldaketa dela darakuste. Eleatarrek, ordea, izatea hartzen dute egiazko bakartzat eta aldaketak zentzumenen ikuskariak baizik ez direla.

JENOFANES

(570-478)

Italia-n eta ibilia, herriak sinesten zituen jainkoak barregarri uzten ditu, jainko bakarra eta orokorra onartuz (ἕν καὶ πᾶν). Eleatar eskolaren theologoa dugu berau. "Jenofanes-ek, aldiz, horiek (Parmenides eta Meliso) baino lehen bakarrarena aldeztu zuenak, ez zuen ezer argitu eta ez hize zuen atzeman ez bataren ez bestearen izatasuna. Aitzitik ortze guztira begiratu eta bakarra jainkoa dela esan zuen". (1)

ELEA-ko PARMENIDES

(530-444 inguruan)

Izatea badela eta bera bakarrik. Beste ezer izatekotan izan-eza litzateke eta halakorik ez dago. Aldagabea ere izan behar da, aldatzen dena ez bait da, izan, izatera doana baizik. Sortugabea, orobat. Bestela, ezatik le^utorke eta ezarik ez da, izan. Aldian mugarik gabekoa, tokiz mugatua da. Esperientzi^z, oster^a, aldaketak badira. Baina, horiek ez dira agerkariak bai^zik eta adimenak ditu arrazoi guzti^zak bere alde. Adimena eta izana bat d^agi, beraz. Izatea gorengoa egiten du dena batera eta batua.

ELEA-ko ZENON

(490. ingurukoa)

Parmenides-ek oinarritzat jarri zu-

en izate bakarraren alde d^agi bere asmakerien bidez, aurkalarien erit^ziz zeuden aldaketak eta aldakiak ukatzeko. Egia, bai honek eta bai bere eskolako aurreko guztiek ere ez zuten auzia guztiz garbitu. Hala ere adimena sartuz bultzakada itzala da^u maiote philosophiari aurrerantzera^zko.

Aldia eta tokia zatitu ezineko atalez e^zgina ba d^ago, ezin liteke ezer higitu, ez aldatu. Aldia eta tokia, berriz, zatigarri dira: helburura iritsi baino lehen ibilbidearen erdira behar du ibiltariak. Erdi horretara baino lehen horren erdira eta horrela luzatuz ez daiteke igitu ezer.

Beste eleatar ospetsu bat Samos-ko Meliso. Parmenides-en antzeratsuas^zmatzen du izatea.

Egin dezagun Akiles-ek txaberamak halako bi edo hamar edo ehun egiten dituela arineketan. Inoiz ez du txaberama atziko. Uneoro txaberama nonbaiten egongo da eta Akiles beste leku batetan. Lasterka dabiltzan artean bietatik inor ez dago bi aldiz leku beratan. Horretara, txaberamak Akiles-ek beste une ibiltzen ditu, bakoitza leku bakarrean bait dago une bakarrean, eta beste aldiz beste bide-une batean. Akiles txaberamaren parera heltzeko hauxe beharko litzateke: txaberama egon den una Akiles egondakoen zatia izatea. Honetan Zenon-ek harako ustea beretu zuen: Denak, osoak, atalak baino zati gehiago duela. Hortik Akiles-ek txaberama atxikitzeko, txaberamak baino leku gehiagotan egon behar lukeen. Baina, une

bakoitzean txaberama zenbat unetan egon, hainbatetan behar du Akiles-ek ere. Beraz, ezin heldu inoiz txaberamaren parera. Arrazoiketa zuzena, osoak atalek baino zati gehiago duela onartuz gero. Ondorena ez bait da egia, ustea baztertu behar eta kitto. Baina, ezin esan hitz erdirik ere lehengo milaka urtetako jakinlarien alde, axioma onartu bai eta ondorioari uko egin bait zioten guztiek. (2)

Ibilbidea etengabe zatitu liteke eta, gainera higiera ibilbidearen gain jartzen dugu eta, bidearen etengabeko zatitzea higierari berari ezartzen diogu. Hala ere, higiera ezin liteke ibilbidearekin bat egin. Bakan eta zatiezina; beraz, dinamiko hutsa; eta ezin ebaki daiteke, geldiarazi gabe, hau da, deuseztu gabe. (3)

OHARRAK

- (1) Aristoteles: "Metaphisika", 986 b, 21-25.
- (2) Russel, Bertrand: "Mysticism and Logic and Other Essays".
- (3) Garcia Morente: "La Filosofía de Henri Bergson"; col. Austral, 1972, 75. orrialdea.

ATOMOLARIAK

Batzuek Heraklito-rekin aldaketa baik ez dagoela; bestetzuek Parmenidesekin izatea dela bakarrik eta ez besterik. Horra munduarekiko auzia garbitu eta argitu ezinik. Artean, atomolariek, izatea eta izatearen aldaketa begi en aurrean zutelarik, era berriaz askatu zuten korapilo bihurri hura.

EMPEDOKLES

(495-455)

Agrigento-ko seme honek lau gaiki dau dela erakusten du: sua, haizea, ura eta lurra. Nahastuz eta bananduz sortzen dira edo suntsitzen izakiak. Izatea, al diz, izan bada. Maitasuna eta Haserrea, biok eragiten diete beste izakiei, lotuz edo bakanduz eta horrela sortzen edo suntsitzen dira gure begietara in gurukoak. "Empedokles-ek, beste inork baino lehen, zergatia bikoiztu egin zu-

en. Higieraren hasiera ez bait du ha-
karra egiten, gauza banak eta aitziti-
koak baizik. Gaikia lau izakik osotz-
en dutela esan zuen. Alabaina, ez da
baliatzen lauez; bi soilik bailirean
dihandu, baina: sua, berez, bestalde iza-
te bakardun bezala hartuta, aurkakoak
: lurra, haizea (eguratsa), eta ura". (1)

LEUZIPO

(500. urte inguruan)

Abdera-ko eskola sortu zuen honek, a-
tomoena asmatuz. Berez osoak eta beti-
koak dira atomoak; hala ere, izan-eza
badago, hutsunea, alegia. Bestela ezin
zatekeen higierarik. Direnak berdina-
k dira atomoak izatez; neurriz eta e-
raz bestelakoak. "Bereizitasunak hiru-
rok direla diote: itxura, zenbatgarre-
na eta egokera. Izatea egokieraz, iku-
tueraz eta ezarkeraz bakarrik bereiz-
ten dela, hirurotatik. Egokiera itxura
da, ikutuera zenbatgarrena eta ezarke-

ra egokera. A, N-tik itxuraz bereiz-
ten da; AN, NA-tik egokieraz; H, H-tik
egokieraz. Higieraz, osteraz, nondik eta
nola duten izakiek, hauek besteak be-
zain axolagabe isildu egin ziren"

(2)

ANAXAGORAS

(500. urtea)

Zatirik txikienak areago zatitu li-
tezke eta, gaiki guztiak gorpuzki guz-
tietan arkitzen direla daitor. Hortik
erraz ulertu liteke aldakuntza. Aris-
toteles-en lehengai bezalatsu edo da
teoria hau. Hala ere, Anaxagoras-en
bultzakadarik handiena beste zerbai-
tean datza. Ordura arte mundua phisi-
kako zergatietatik daragite. Beronek
lurbiraren ederra eta ordena ikusi-
rik adimen batean jartzen du sorbu-
ruea. Adimen hori, νοῦς hori, gauzarik
mehena da, ez du atalik besteek beza-
la.

Garbi eta berezia da eta, enparauak zuzentzen ditu eta antolatzen. Antolatu ahal izateko, jakina, dena dazagu. Denari daragio, beraz.

Ordura arteko beste jakinlarien aldean, zentzudunago eta buru argiago eta azkarrago dagerkigu Anaxagoras Klazomene-koa. Hara beragatik Aristoteles-ek zer zioen: "*Animalietan bezala izadian ere adimena badela, ludiaren eta denaren arrazoia; zentzuduna agertu zen ganorabakokeriak esaten zituzten hesteen ondoan*". (3)

DEMOKRITO

(470)

Abdera-ko seme honek betea eta hutsa dagizki izaki guztien azken gai. Hutsa, izan-eza, atomoen arteko bitartea baizik ez da. Atomook, mugagabeak, iusteekin, izakeraz berdintsu eta enbakeraz banandu ezinekoak dira,

ἄτομοι. Tankeraz, elkar-joskeraz eta ezkerkeraz bereizten dira soilik; higiera betikoa da eta, atomoen eragin indarra dugu eta hortik ludia osotzen zaigu. Giza-anima atomo-mordoa da. Gogo-atomoak, baina, zehatzago eta bikainago diren arren. Izakietatik ataltxo batzu datoz, εἴδωλατα, zentzumenak ukitutuz; horra ezagutza. Hortik dugun ezaguera benetakoa eta egiazkoa da zabalera eta higierari buruz. Besteak, berri, ezin ditukegu egiazkotzat hartu ez bait dakigu gorpuzkietatik datozen atomoak zentzumenetan sartu behar diren eta ezin jakin zer datorren batetik edo bestetik. Adimenak ulergarrian sartuz benetako ezaguera damai gu.

Etika aldetik, atsegina ona eta oinazea txarra dela diosku. Alabaina, atsegin hori benazkoa izateko iraunkorra behar dugu. Hori dela eta, suntsiezi-

nezko gauzetan bilatu behar dugu a-
tsegina gizonok. Behinen gogoaren bar-
nean eta ez atetiko sorkarrietan. Ja-
kintzaren bidez gizonak berezko ditu-
en gorabeherak zuzentzen daki eta go-
rengo mailan jartzen du bere burua.

OHARRAK

- (1) Aristoteles "Metaphisika", 985 a,
30-33; 995 b, 1-2.
- (2) Iden ibidem: 985 b, 14-20.
- (3) Iden ibidem: 984 b, 15-18.

SOPHISTAK

Izaditik gizadira bihurtzen da bostgarren gizaldiko jakinlarien begirada. Lehengo philosophoek ez zuten auzirik guztiz garbitu jakintza mailan. Bestetik guduana eta beste herriekiko harremanetan gaztedia. Legeen arazoa batean batera eta bestean bestera hartzen dutela ikusi eta moral eta jakintza arloan beharkizuna gabe jardukizuna, elkar hartu eta aituta, jartz-en dute ardatz bezala. Bestalde, lehen baino jendetza handiagoa kezkatzen eta arduratzen da politika gauzetan. Beraz, azokan ἀγορά-n ez ziren bakkarririk erabiltzen lehengo auziak. Norbera ezagutu, herria eta demokrazia aurrera eroan ahal izateko burua landu behar. Eta jende aldra horiek eskolatzeko irakasleak sortu ziren sofistak, beren jakintza diru-truke gaste-

ei ematen zietenak. "Namque illos veteres doctores auctoresque dicendi nullum genus disputationis a se alienum putasse accepimus semperque esse in omni orationis ratione versatos". (1) Herritarrek auzitegian beren alde jokatzeke eta epaikariak berenganatzeko, jakintza handia, batez ere erretorikan beharrezkoa zen. Jakinlariok irakasten zioten jendeari hiri. Gero, baina, auzi guztiak garbitu gura eta, jakina, bihurregi bilakatu zen jakitea. Gauzak nola edo hala aldeztu, behar eta jakintza norberakorra egiten zen. Horbenetako jakintzazko gaitzespena edo etsipena. Ironiaz dihardute egiazko jakiteaz. Azkenean jakintza zabaldu ordez saldu egiten zuten eta, nardagarri bihurtu ziren irakasleok. Sokrates-ek eta Platon-ek bereziki horien aurka daragoioe sarri askotan. Horixe da gure egunetako zentzun eta esangura ga-

iztoa."La habilidad más baja del ingenio es enredar a otros con *Sofistērias*".(2)

SOPHISTAK

Grekoen kultura arloko minoria zuzendariarengan sophistek izan zuten eraginak ondorengo harrigarriak ekarri zituen. Haien irakatsi eta erakutsiak, agerikoak eta bestelakoak gero eta aurrerago zabaldu ziren, errealtatearen inguruneen aldeko azkenengo ahalmenak erakusteraino. Ahalmenok berok berenez hedatu ziren historiaren halabeharrak aldatuta arren. Sophisten eraginak, izan ere, antzinako ordenaren oinarriak astindu zituen. Hala ere, egiaz, ideia hauen azaltze eta ahalmena bestelakoak izango ziren Makedonia-ren jasotze eta Sortalde gertukoaren konkista al-dian gertatu izan balira Alexandro Handiaren eskuz. Ekintza eta egipen-

ok sophisten bulkoen historia-indarra osotoro antzaldatu zuten. Giro egokia eman zieten hazteko eta beren azken mugak ardiesteko.(3)

PROTAGORAS

(485-415)

Abderatarra jaiotzez, "Antilogiak" eta "Jainkoez" idatzi zituen, beste batzuren artean. Demokrito-ren esanez ezagutza gauzakien atomoek gogoarekin jotzean sortzen bada, jotze aldirako bakarrik balio du ezaguera horrek. "Gizona direnon *neurria*" ἄνθρωπος πάντων μέτρον, esanarekin erlatibotasun hutsa sartzen du jakintza eta moral gauzetan.

GORGAS

(483-375)

Hizlari bikaina, Siziliatarra jatorriz. Zera jalki zuen, ez dagoela ezer:

zerbait izatekotan edo sortua(Parme-
nides-en irakatsiz,ostera ezina du-
gu hau)edo betidanikoa(horrela bal-
itz,mugagabea ere izan behar eta ho-
rrelakoa ezin egon nonbaiten eta i-
non ere ez).Gainera,ezer balitz ezi-
n ezagutu eta ezagutu ahal balitz e-
zin azaldu.

... ..

HIPIAS-en ustez lege mota bi daude:
Φύσις horrek ezarritakoaketa gizon-
ek egindakoak.Lehenbizikoak aldaga-
itzak eta bigarrenak, νόμοι,aldako-
rrak.PRODIKO-ren eritzirako onurar-
ren men egiten diegu legeei.KALI-
KLES-ek,aldiz,honetara uste du:iza-
diak soilik badu lege ziurra ezart-
zeko ahalmena,besteak oro hautsi be-
harrekoak,Indartsuena,zuhurrena,nagusi.
Berdintsu ANTIPHONE-k eta ALZI-
DAMANTE-k.

Argi dago sophistek erakusten duten
ἀρετή delakoa ezin har dezakegula
birtutetzat,trebetasuna bezala bai-
zik. Φιλολογοὶ deitu izan zien Pla-
ton-ek,ez φιλόσοφοι. "Hitzak eder,
eginak lander","hitzak ederrak zin-
tuen,baina bertzetan zure gogoa"es-
ango zukeen euskaldun jator batek,
euskal esaera-abesti zaharren arau-
ra.(4)

OHARRAK

- (1) Kikero, M.T.: "De Oratore", 3, 22.
- (2) P. Feijoo: "Discursos y Cartas";
Prólogo al lector.
- (3) Romero, J.L.: "De Herodoto a Polibio"; col. Austral, 113. orrialde-a.
- (4) Fischl, Johann: "Manual de Hª de la Filosofía"; Herder, 1974; 54-60 orrialdeak (atal guztirako)

SOKRATES

(470-399. ingurukoa)

Ez zuen ezer idatzirik utzi. Platon-i eta beste batzuri esker dakitzagu harekikoak.

Sophistek egiazko jakintza eta moralaz ezereztu egiten zutela ikusirik, zer-zergatien bilaketan saiatu zen bereziki. Bere philosophi-saiaketa teoria hutsari gabe praktikari zuzendua dago.

Ironia eta maieutika darabiltza ikasbide-azterketatzat. Ironiaren bidez ezer ez dakitela edo ziurtasunik gabeko jakitea dutela onartzeko bulatzatzen ditu gazteak. Gero maieutikaren bidez esandako zerbait aztertu, xehetu eta zehaztu egiten du, harik eta benetako jakitea lortu daitekeela ikustarazi arte.

Sophistak zuzen ari dira gauzak eta

hitzak azal askotarikoz estalduak direla esatean. Hortik esannahi ugariak Hala ere, mamina bakarra da. Kontzeptuak ditugur egiazko eta benetako jakintzaren oinarri.

Zenbat eta hobetoago ezagutu gauza bat, are hobetoago zertu egin daiteke. Moral arloan ere, ona ezagutu eta errazago jardungo dugu on-bidean. Gaizki diharduena ez omen onaren ezagutzaile. Birtutea eta etika irakatsi egin litezke, beraz. Moralitasuna nagusi bere gainezkoa bezala daiteke, ez giza legeek agindu edo ezarritakoa. Egiazko ontasunik handiena gogoarena.

Norbera ezagutu behar, gero artezki ibiltzeko. Gure gaineretiko maila moralak orokorra onartzen du. Barruko δαίμων**u** batek eramaten gaitu zuzenki bizi-bidean.

Berebiziko pedagogoa izan zen. Alabaina, sistema osotu bat ez zigun eskai-

ni eta haren ondorengoak bide ezberdinetatik abiatu ziren.

SOKRATETARRAK

KINIKOAK: Antistenes-ek sortu eskola-koak (445-365). Autarkia zaleak ditugu. Zoriona animaren esparruan datza. Besteak oro ezetsi. Zibilizazioaren aurrerapenak ere kate gogorrak bezala hautsi egin behar dira. Izadia soilik hartzen dute gidari nagusitzat. DIOGENES (323. ingurujoa) Itsas Beltzaren ondoko Sinopetarra jatorriz. Kinikorik kinikoena omen zen. Aberats bati 1.000 drakmako balioa ezarri zion. Besteak haserre: "Kirten hori, nere eraztunak balio dizu horrenbeste". Eta Diogenes-ek jardetsi: "Berau ere kontutan hartua dizut". Tebas-ko KRATES (IV. gizaldian): ondasun eta aberastasun guztiei uko egin eta preminagorrian bizi izan zen, eskale antzo,

birtuteari hutsari jarraiki guraz.

OHARRAK

Tovar, A.: "Vida de Sócrates"; Madrid, 1947.

LEKUAK eta PERTSONAK
(orrialdeka)

Aezi, 28	Dionisios, 37
Abdera, 50, 52, 59	Egipto-ko apaiz- ak, 26
Alexandro Handia, 58	Elea, 43, 44
Alzidamante, 60	Eliz-Gurasoak, 16
Anaxagoras, 51	Empedokles, 49
Anaximandro, 27, 33	Epheso, 35
Anaximenes, 33	Euristratos, 33
Antephone, 60	Feijoo, 58
Aristoteles, 15, 23, 55	Fischl, Johann, 60
Augustin deuna, 38	García Morente, 47
Alkmeon, 40	Goikoetxea, I., 40
Arnaldich, Luis, 25	Gorgias, 59
Apolonia, 34	Heraklito, 35, 43, 49
Akiles, 46, 47	Hesiodo, 29
Demokrito, 52, 59	Hessen, Johannes, 16
Deskartes, 16	Himera, 40
Diogenes, 34, 65	Hipias, 60

Hippasos,40
Itsas Beltza, 65
Izadia, 65
Jakín,23
Jenophanes,43
Jubenal,37
Kalikles, 60
Kikero,M.T.,6,57
Kinikoak, 65
Klemente,40
Krotona,40
Krates, 65
Leon XIII,17
León de,Frax Luis,
40
Leuzipo,50
Makedonia,58
Maritain,J.,7
Meliso,45
Mileto,22,33
Mullach,42
Parmenides,44,49
Pío XII,17
Petron,40
Pitagoras,37,38
Prodiko,60
Protagoras,59
Platon,15,63
Pseudoplutarko,28
Romero,J.L.,58
Russel,Bertrand,
46,47
Samos,37,45
Simplizi,42
Sinope,65
Sizilia,59
Sokrates,22,63
Sokratetarrak,65
Sophistak,56,58
Tales,22,23
Tebas,65
Thonard,F.J.,22
Tomas deuna,16,18
Tovar,A.66

Valdés,A.Palacio,
10
Werner,Ch.,22
Zenon,44,46
Zielinski,Thadee,
42

GAIAK
(orrialdeka)

agora, 56
aldagabea, 44
ἄνθρωπος πάντων
μέτρον, 59
ἄπειρον, 27, 28, 29
ἀρετή, 64
atomoak, 50, 52, 53, 59
atsegina, 53
bakarra, 36, 43
Batikano, 9
birtutea, 64
daimon, 64
εἰδωλατα, 53
eguratsa, Vide: haizea
erlatibotasuna^a, 59
etika, 53, 64
philologoi, 23, 61
philosophoi, 61
φύσις, 60
haizea (eguratsa),
28, 33, 49
ironia, 63
izakien muina, 23
26, 27, 38
hamarrekoa, 39
jakintza-motak,
7
Kaos, 29
kontzeptuak, 64
Kosmos, 29
κάθαρσις, 39
legeak, 56, 60
logos, 36
lurra, 33, 49

maieutika, 63
μετεμψύχωσις, 39
moral, 64, 56, 59
νόμοι, 60
νοῦς, 51
oinazea, 53
πόλεμος, 36
πάντα ρέι, 35
sortugabea, 28
sua, 36, 49
txaberama, 46
ura, 24, 49
zenbakia, 38

ARKIBIDEA

<u>gaiak</u>	<u>orrialdeak</u>
Aurkeztu-beharra.....	3
Philosophia.....	5
Philosophi-Aroak.....	14
Grekoak jakintza bideetan.....	21
Mileto-ko Tales.....	22
Anaximandro.....	27
Anaximenes.....	33
Apolonia-ko Diogenes.....	34
Epheso-ko Heraklito.....	35
Pitagoras eta.....	37
Jenofanes.....	43
Elea-ko Parmenides.....	44
Elea-ko Zenon.....	44
Atomolariak.....	49
Empedokles.....	49
Leuzipo.....	50
Anaxagoras.....	51
Demokrito.....	52
Sophistak.....	56
Protagoras.....	59
Gorgias.....	59
Hipias eta.....	60
Sokrates.....	63
Sokratetarrak.....	65
Lekuak eta pertsonak.....	67
Gaiak.....	70